

Narratiba



OTALOREA
Toti Martínez de Lezea

erein

OTALOREA



Narratiba, 65

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.cedro.org).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du.

Jatorrizko izenburua:

La flor de la argoma

Azala eta liburuaren diseinua:

Iturri

Maketazioa:

Erein

Azaleko irudia:

Aritz Albaizar

Itzulpena:

Rosetta Testu Zerbitzuak

© Toti Martínez de Lezea

© EREIN. Donostia 2008

ISBN: 978-84-9746-474-1

L. G.: S.S.: 1681-08

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300 F 943 218 311

e-mail: erein@erein.com

www.erein.com

Inprimatzailea: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: edizioak@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Toti Martínez de Lezea

OTALOREA



Asier Muniategiri

*Nire maitasuna eta esker ona
Jerardo eta Irantzu Elortzari, beren denboragatik,
eta Pernando Mendiguren eta Xabier Guridiri,
beren laguntzagatik.*

Begiekin hitz egiteko gai den arimak,
begiradaz eman dezake musua.

GUSTAVO ADOLFO BECQUER
(1836-1870)

Araotz

San Silbestre egunean bertan, Bittor jaio eta urtebetera doi-doi, sortu zen haren anaia Eladio. Ama izateko bere ametsa egia bihurtuta ikusi zuen, behingoz, Martinak, Urondoa baserriko etxekoandreak; hogeitau urte zeramatzan ez-konduta, eta ingurukoek Sandaili zeritzen haitzuloko San Elias ermitara joana zen, urtez urte, hango askan lotsariak garbitzera, gune hura emakume antzuen erromesgune izana baitzen, kristautu baino askoz ere lehenagotik. Amaren bularrak esnerik ez, ordea, eta Ozaetako inude batek eman zien bularra anaiei, biei batera; emakume sendoa zen, baina ergel samarra, eta, auzoko batek haurdun utzi zuelarik, haurra erditu ondoren, gurasoek neskame bidali zuten Araotza, Elgeako mendilerroaz beste aldera, bi isurialdeetako biztanleek Arabako Mendiak deitzen zieten mendiez beste aldera. Titia kendu ere, batera kendu zieten bi haurrei, hilabete gutxiko aldearekin. Haien ondotik, beste bi anaia etorri ziren, Agustin eta Tomas, eta amak eskerrak eman zizkion Arantzazuko Andre Mariari, laugarrenaren ondoren agor utzi izanagatik; berrogeita hamar betetzear, ez zuen

bere burua ikusten haurrak erditzen jarraitzeko kementsu, eta Andre Mariari eskaria egina zion haitzuloko santuaren ofizio onak indargabe zitzaizkion.

Eladio Bittor baino bizkorrago hazi zen eta garaiera bertsua zuten biek; bikitzat ere hartuko zituzten, baldin eta zaharrenak aitaren begi argiak atera ez balitu, eta besteak, amaren begirada ilun eta artega. Nor nagusituko lehian aritzen ziren beti biak, baita muturka ere, lau anaiak bainatzera edo arrantzara joaten zirenean, Jaturabeko muinoartera, haitzarte sakonera, ura goroldioak estalitako arroka irristakorren artetik isurtzen zen eta eguzkiak abarrak nekez zeharkatzen zituen gunera; edo hegazti arrautzen bila mendian gora igotzen zirenean; edo zurrumurruen arabera karlistek ezkutatu bide zituzten urrez eta zilarrez beteriko poltsen bila Arrikruzko haitzulora sartzen zirenean. Ibilera arriskutsuak ziren, eta auzoko mutikoetatik inor ere ez zen ausartzen haiekin joaten; beraiek hala nahiago. Basati eta aske hazten ari ziren, lotura orotatik libre, gurasoak zaharregiak baitziren diziplina ezartzeko eta, gainera, harro baitzeuden semeen balentriez eta zein osasuntsu eta indartsu hazten ari ziren ikusirik.

Zorigaiztoko egun batez, ordea, dena aldatu zen. Sukarrak beste mundura eraman zituen Urondoako nagusiak, lau semeak umezurtz utzita. Ez familiaren adar batean ez bestean ahaiderik ez zuten, auzoko erretoreak hartu zituen mutikoak bere gain, eta haiek Loiolara eramatea erabaki zuen, Zazpi Urteko Gerran Arantzazuko frantziskotarren komentua erre zuten, ezingo baitzituen han utzi. Jesuitek bazuten gazteentzako ikastegi bat Loiolan, baina ez zebilen ikasle asko barnetegian, Mallorcara aldatu zutelako fraidegaitegia. Lagundia hainbat aldiz

utzi zuten bertan behera eta haren kideak beste hainbeste al-
diz sakabanatu zituzten, gobernu aginduz, eta oraindik oso bi-
zirik zegoen Karlistaldiaren amaieran elizgizonen kontra ger-
tatutako errukirik gabeko herri-oldarraren oroitzapena:
elizgizon batzuk hil eta zauritu zituzten, Madrilen eta beste toki
batzuetan. Orduan hamabost urte, berrantolatu egin zen La-
gundia, baina batek zekien une batetik bestera zer gerta zite-
keen, ez baitzen giro, politika kontuetan. Don Pedrok harre-
man estua zuen ikastegiko ekonomoarekin, eta lau anaiak han
onar zitzaten lortu zuen; diru apur bat ordaindu behar izan
zuen horren truke, baina ziur zegoen berehala berreskuratuko
zuela Urondoako ganaduaren parte bat salduta. Zaharrenak le-
trak eta numeroak ikastea zen erretorearen asmoa, garaia iri-
tsitakoan, baserriaren eta lursailen ardura har zezan; bien bi-
tartean, adin nagusitasuna iritsi artean, berak zainduko zuen
haren herentzia. Beste hirurak, berriz, elizarakotu egingo zi-
tuen. Mutikoez oinez egin zuten Araoztik Azpeitirako bidea,
eta asto gainean joan zen apaiza; Zumarragako apaizetxean gel-
ditu ziren, gaua egitera, eta biharamun arratsean heldu ziren
Loiolara.

Bost urtez, ikastegiko harresien barruan bizi izan ziren
Urrondo anaiak, irtenaldirik eta oporrik gabe; don Pedrok esa-
ten zuenez, haiek zaintzeko zeregin gehitxo zituen berak, baita
egun batzuetan haiek etxera eramateko ere; eta mutikoei bu-
ruz galdetzen zieten, beti ohartarazten zien, edonola ere,
inon ez zirela egongo erlijiosoekin baino hobeto. Agustin eta
Tomas erraz samar egokitu ziren beren bizimodu berrira, gaz-
teagoak zirelako-edo; baina ez zen hala gertatu bi zaharrenekin.
Bitorrek eta Eladiok ez zuten inola ere onartu egoera. Errieta,

zigor eta zaplaztekoekin ere ez zuten lortzen haiek otzantzerik, eta beti ibili behar izaten zuten beraiekin kontu handiz, ihes egin ez zezaten; saiatu ere, saiatu ziren ikastegira iritsi berritan, baina, ihes egin eta handik bi egunera, artzain batek topatu zituen, goseak jota eta hotzak dardarka, Erlo mendiko artegi batean. Barnetegiko mutikoen ardura zuen lagunkideak ikastegitik botako zituela mehatxu egiten zien, egun batean bai, eta hurrengoan ere bai, eta sarri joaten zitzaion zuzendariari ke-xuka; baina, ordurako, zuzendariaren eta urrundotarren arteko norgehiagoka bihurtuta zegoen auzi hura. Bi anaia menderakaitzek eginahalak eta bi egiten zituzten handik kanpora zitzaten, baina elizgizona guztiz erabakita zegoen kosta ahala kosta haiek otzantzera, eta, sarritan, gela batean sartuta edukitzen zituen, hainbat egunez, ogia eta ura besterik eman gabe, baretzen ziren arte. Lasaitasunak ez zuen luzaro irauten, ordea, eta laster itzultzen ziren lehengoetara. Jesuitek, halere, eta neke handiz bazen ere, lortu zuten irakurtzen eta idazten ikas zezaten, eta numeroak ere, zertxobait, eta ezer gutxi gehiago. Ez zuten lortu, hori ez, beren kideen artean lagunik egin zezaten, haiengandik ihesi ibiltzen baitziren eta bakar-bakarrik egoten baitziren jolas orduan eta lanarteetan, ikastegia inguratzeko zuen harresian berमतuta, begirada ostertzean iltzatatuta, beren etxea gogoan, hara itzultzeko gelditzen zitzaizkien egunak, hilabeteak, urteak zenbatzen, irrikaz.

Bitorrek hemezortzi bete baino aste batzuk lehenago, gobernu liberalak Jesusen Lagundia bertan behera uztea erabaki zuen, eta, beste behin ere, mende hartan hirugarrenez, jesuitek beren ondasunak bildu eta beren etxeetatik alde egin behar izan zuten. Mallorcara jo zuten batzuek, handik Italiara bidaiatu

egiteko asmoarekin; beste batzuek muga zeharkatu besterik ez zuten egin, Frantzia hurbilago baitzegoen eta, oraingoz, han ez baitzieten erasotzen. Gehienak, ordea, lurraldean bertan sakabanatu ziren, ospitale, umezurtz etxe eta moja etxeetan apaiz edo kapilau. Non aritu ez zutenak edo abenturarako adina igarota zeudenak etxera itzuli ziren. Ikasle batzuek erbesteratuekin joateko gonbita jaso zuten, baina Bittor eta Eladio Urrondok berehala Araotza itzultzea erabaki zuten, eta anaia gazteak beraiekin joan zitezen eskatu zuten. Ikastegiko zuzendariak ezezkoa eman zien, hasieran, batez ere, ordurako eginda zeuzkalako haienezako planak; izan ere, gerrak ekarritako eskasia zela-eta, gurasoek uko egiten zioten semeak elizarako uzteari, beso falta baitzuten baserriak aurrera ateratzeko. Bestalde, herrialdearen egoera politikoa, uzta txarrak eta eskasia orokorra zirela-eta, monasterioetan eta komentuetan sartutako bigarren seme askok eta askok Ameriketara alde egin behar izan zuten, etorkizun hobearen bila. Bi gazteenak adeitsuak ziren nortasunez, zaharrenen oso bestela, eta osasuntsu zeuden, indartsuak ziren eta misiolari onak izango ziren. Garai hobeak etorri artean, berak jasoko zituen eta Hernanin osatuko zuen haien irakaskuntza, bere sortetxean. Bittorrek ez zuen horretaz hitzik ere entzun nahi, ordea, eta jesuita ez zen ausartu hari aurre egiten. Haserretzen zenean, ia zeharrargi jartzen zitzaion begirada, ahal izatera saihestea komeni zen erreakzio oldarkor baten iragarle izaten zena. Ikastegi osoari su emateko gauza ikusten zuen apaizak, eliza barne, baldin eta hark eskatutakoari uko egiten bazion. Agustín eta Tomás saiatu ziren ez amore ematen, nahiago baitzuten maisuarekin gelditu; baina beren begiradak anaia nagusiaren begiradarekin gurutzatuz zirelarik, burua makurtu eta otzan-otzan jarraitu zioten.

Handik bi egunera, Urondoa parean zeuden. Atsedenetik hartu gabe egin zuten bidea, hegoalderantz beti, arroken babesean edo lapurren antzera lastategiren batera sartuta ordu batzuk lo egitera geldituz, eta bidaia guztian udare eta sagar batzuk besterik jan gabe. Atea itxita zegoen, baina Eladio gogoratu zen amak giltza bat edukitzen zuela oinetxeko pagoren sustrai irtenek erdi ezkutatutako harri baten azpian gordeta; eta egon ere, hantxe zegoen, hezetasunak eta denborak herdoilduta, baina erabilgarri, halere. Ibai aldeko zuhaitzen artetik kezko zutabe bat igotzen zela ikusi zutelarik, baserrian berriro jendea bizi zela jakin zuten bailarako herritarrek, eta norbaitek San Migelgo erretoreari abisatu zion. Don Pedro berehala agertu zen etxetzarrear, berria jakinarazi zion auzokoa lagun zuela, eta hantxe aurkitu zituzten lau anaiak, etxea itxita egondako urteetan pilatutako armiarma sareak eta hautsa garbitzen. Ez ikusiarena egin zieten laurek, harik eta erretoreak gelditzeko agindu zien arte. Bi zaharrenak gelditu, eta bata bestearen alboan jarri ziren, erratzei tinko helduta, horiek bisitarien kontra edozein unetan astintzeko prest baleude bezala; gazteenak haien atzean jarri ziren.

–Eta zuek, nor zarete? –galdetu zien erretoreak.

–Etxearen jabeak –erantzun zuen Bittorrek, lehor.

Don Pedrok begiak behin eta berriz kliskatu, eta berarekin joandakoari begiratu zion, zalantzati; hura ere bera bezain harrituta zegoen, ordea. Biek zituzten gogoan Urondoako zaharrenak: bi mutiko zakar, ia basati, ez oraintxe aurrez aurre zituzten bi mutiko bizkar-zabal haiek. Txikitan, elkarren antz handia zuten biek, baina denborak bereizi egin zituen, eta dagoeneko ez ziren hain berdinak; hala ere, garbi zegoen anaiak

zirela eta ezagun zuten nor zen beren aita: Juan Urrondo, Txangoa ezizenez ezaguna, herrena.

–Eta nolatan zaudete, bada, hemen? Nola etorri zarete?

–Oinez.

–Jesuitenetik ihes egin duzue?

–Ez.

Erretorea gogoratzen saiatu zen. Urtero, Pazko Garizuman, dirua bidaltzen zuen ikastegira, bere apopiloen mantenurako, eta bere adiskideak, ekonomoak, beti erantzuten zion, dirua hartu zuela adieraziz eta haien berri emanez; baina ez zuen gogoratzen azken gutunean ikastegitik irtetera zihoazelako konturik aipatu zionik, nahiz eta urte bukaerarako Bittorrek hemezortzi beteta izango zituen eta ordura arte bere onurarako ustiatu zuen jabetza hari uztera behartuta egongo zen. Azken asteetan Oñatira jaitsi gabe zegoen, eta ez zeukan gobernuak jesuitak kanporatzeko emandako azken aginduaren entzuterik.

–Nirekin hitz egitera etorri behar zenuten, etxean sartu aurretik.

–Zergatik?

–Lege batzuk daudelako, artean adingabeak zaretelako, zuen gurasoen testamentu-betearazlea neu naizelako eta ezin zaretelako ezerezetik horrela agertu, besterik gabe.

Don Pedroren ahotsa gero eta ozenago entzuten zen, hitzaldiak aurrera egin ahala; aurpegia gorri-gorri jarri zitzaion, eta ukabilak estutu zituen. Ez zuen inori zertan azalpenik eman, eta ez zuen onartuko mutil koskor batzuek bere bizi-modu eratsua asaldatzerik. Urrondotarren lurren alokairutik errenta ona ateratzen zuen, saldu egin zuen ganadua eta salmentatik ateratako dirua nora joan zen azaldu beharko zuen,

lehenago edo geroago. Eta ez zeukan asmorik ez lehena galtekorik ez bigarrena frogatzekorik.

–Entzun ezak, apaiza. Lege bakarra zagok hemen: odolarena. Etxe hau gurasoena zuan, eta orain geurea duk; ez hirea. Ez zagok besterik esan beharrik.

Bitorrek zen baino nagusiagoa ematen zuen, bat-batean; haren ahotsa bare eta harrigarriki baxu entzuten zen, baina argi eta garbi adierazten zuen berea zena eskatzeko asmo erabakia zuela. Bi gizonek presaka alde egin zuten baseritik, ezertxo ere esan gabe, apaiza une batetik bestera suminaldiak mendean hartzeko zorian. Apaiz zeraman denboran, inor ez zitzaion inoiz hika egiten ausartu.

Biharamunean, goizean goiz, hiribildura jaitsi zen erretorea, don Antonio Zabala abokatuaren bulegora, egoera zertan zen azaltzera. Legelariak adi-adi entzun zion, eta gero bere epaia eman zuen: ez zeukan zer eginik, ez zegoen erretorea lau umezurtzen testamentu-betearazle izendatu zutela adierazten zuen dokumenturik, ezta ganaduaren salmentari buruzkorik eta salmentaren truke jasotako zenbatekoei buruzkorik ere. Bitor Urrondok eskubide osoa zuen baserria, lurra eta, jakina, bere onespelik gabe saldutako ganadutik ateratako dirua itzul ziezaioten eskatzeko, azken bost urteetako lurren alokairuari zegoenaz gainera. Edozein epailek emango zion arrazoia. Abokatua kupitu egin zen apaiza kopetako izerdia lehortzen ikusita, eta bitartekari lanak egiteko eskaini zuen bere burua, pezeta bat ere kobratu gabe, Juan Urrondo *Txangoak* bizia salbatu baitzion bere aitari, Zazpi Urteko Gerran, eta, orain, familiaren zor bat kitatzeko aukera baitzuen, haren semeak apaiza hiltzeagatik espexera zitzaten, edo, are gehiago, garrotez hil zitzaten

saihesteko besterik ez bazen ere. Berak ere izan zuen bi anaia nagusien nortasun zakarraren entzutea, hilabete batzuk lehenago, jesuitek Oñatin zituzten jabetza batzuk zirela-eta Loiolara egindako bisita batean. Don Pedrokekin auzoraino joan eta, han, denekin elkartu zen, egoera azaldu zien, ezertxo ere ezkutatu gabe, eta tratu bat proposatu zien: mutilei berehala itzuliko zizkieten errentan utzita zeuden beren lur guztiak, ereindakoak eta uztak barne. Erretoreak zor zien diruari zego-kionez, berriz, berak hitz egingo zuen elizbarrutiko adminis-tratzailearekin, eta, beren hezkuntzarako ordaindutakoa ken-duta, zorra kitatu artean urteko hainbateko bat esleitu ziezaien saiatuko zen. Gobernuak abian jarritako parrokien erreformaren arabera, bertan behera gelditu behar zuten hamarrenek eta hasikinek, baina ez zirudien Calahorrako elizbarrutiak agindu hura betetzeko asmorik zuenik, eta elizbarruti haren mende zegoen Gipuzkoako probintziaren mendebala. Animalia batzuk erosteko dirua eskuratu artean, berak mailegatuko zien behar zutena, korriturik gabe; halaxe nabarmendu zuen. Urrondotarrek onartu egin zuten, baina erabakia hartu, Bit-torrek hartu zuen; izan ere, laurak zekiten bera zela etxaldea-ren jabea, anaiak zaintzeko betebeharra zuen arren, gurasoek hil baino lehentxeago egindako testamentuan xedatutakoaren arabera.

Kontuak argitutakoan, Zabala abokatu bidexka basotsu batean barrena abiatu zen, teilatua erortzear zuen baserri batera. Etxeak pertsonak bezalakoxeak dira, esan zuen bere baitarako. Maitasunik gabe, konpainiarik gabe, gainbehera etortzen dira, pixkanaka, hondakin huts bihurtu arte. Hilabete batzuk besterik ez ziren baserria hutsik zela, eta urteak igaro zirela ematen

zuen: belarrak bazituen hiruzpalau arra, etxabe guztia goroldioak hartuta zegoen, eta goraino estaliko zituen hormak ere, aurki. Pare bat enara hegan atera ziren leiho batetik; hain baxu hegaldatu ziren, non kapela garaia lurrera bota baitzioten ia. Negua lehorra eta hotza izan zen, eta, seguru asko, etxe osoa egongo zen animalien babesleku bihurtuta; hala, bertan behera utzi zuen zalditik jaitsi eta etxera sartzeko asmoa, basurdeen umealdi bat –edo zerbait okerragoa– aurkituko zuen beldur. Artzainak udaletxean izan ziren, mendilerroaren oinetan otsoak zebiltzala salatzen. Baserriari azken begiratu egin, eta igeltsero talde bat teilatua konpontzera bidaltzea erabaki zuen; ondoren, etxea eta lurra egoera onean mantentzeko familiaren bat topatuko zuen, bere alababixiak haiekin zer egin nahi zuen erabaki artean.

Handik alde egin aurretik, goragoko baserri batera begiratu zuen, eta kapelu garaira eraman zuen eskua, agur modura. Lau ontzako haga zabala eskuetan berari begira zegoen gizonak ez zion agurrari erantzun.

Julia abuztu hasierako egun sargori batean jaio zen, eguerdi bete-betean, eguzki galdak pertsonak nahiz animaliak denak berdin-berdin kiskaltzen ari zenean. Amonak aurrerago esan zuenez, emaginari kontra egitearren jaio bide zen garai horretan, umea gauez jaioko zela iragarri baitzuen hark. Valentin Iturralde eta Benita Ibañez senar-emazteen lehenengo alaba, eta bakarra, izan zen, eta jaiotza zaila izan zuen. Erdi-urrenak orduak igaro zituen minaren minenez eta erdi-aurreko uzkurdura gogorrekin; hainbeste, non haren bizia eta haurrarena arriskuan

ote zeuden beldurrez, apaizari deitu baitzioten, elizakoak eman ziezazkien. Bekoa baserria jendez bete zen; laguntzeko irrikaz, edo, okerreanean ere, hil-janzten laguntzeko irrikaz joandako auzoko emakumez eta eguzkiaren babesean etxearen alde batetik bestera lasterka zebiltzan haurrez gainezka zegoen. Ama-alabak bizirik irten ziren trantze hartatik, nahiz eta amaren osasunean arrastoa utzi zuen, ume gehiago edukitzeko itxaropen oro galdu baitzuen; hala ere, baserrira bildutako emakume batzuen iritzian, benetako bedeinkazioa zen hura. Haurdunaldiek eta eguzkiz eguzkiko lanak garaia baino lehen atsotzen baitzitu-
tuen emakume gazteak; hori, erditzean edo erdiberritan hiltzen ez zirenak. Nahitaezko berrogeialdia igarotakoan, Benita ez zen ohetik altxatu; ez zen zutik egoteko gauza. Amaginarrebak hartu zuen bera artatzeko eta etxea eta haurra gobernatzeko ar-
dura, bera suspertu bitartean; ez zen suspertu, ordea. Urte har-
tan bertan, udazken hasieran, zendu zen Benita, haizea zuhai-
tzetako hostoak erauzten eta baserritarrak lurra lantzen hasi
berriak zirela, alaba umezurtz bat eta senar durduzatu bat
utzita.

Valentinek ezin zuen ulertu hura guztia; beste edonor hil ba-
litz bezala parte hartu zuen emaztearen beilan, hiletan eta
ehorzketan, lagun bati emaztearen hiletara lagundu balio be-
zalaxe; ez zituen entzun auzoko emakumeen doluminak, ez zi-
tuen sumatu auzoko gizonen bostekoen estutuak, eta gogotik
kostatu zitzaien ohartzea alaba jaioberria zeukan alargun bat
zela. Pikutara joan ziren bizimodu eratsu baterako plan guztiak.
Beste emakume bat bilatu beharko zuen, aurrekoak hasitakoa
amai zezan –hau da, seme-alaba gehiago eman ziezazkion,
urte batzuen buruan berari lanean laguntzeko eta zahartzaroan

zaintzeko—; etxea, jatorduak, arropa, baratza goberna zitzaizkien; eta, batez ere, zenduak ohean utzitako hutsunea bete zezan. Hala, txintik atera gabe baietz esan zuen, handik aste batzuetara, bere amak Felicianaren izena aipatu zuenean; beren hurbileneko auzokide eta Goikoa baserriko nagusi Faustino Lasaren oinordeko bakarra zen.

—Ez da Benita bezain polita, baina emakume sendoa da, eta sasoikoa. Ez du haurrak erditzeko arazorik izango, eta, gainera, ezkonsari ederra jarriko du. Eta are gehiago jasoko du aitaren ondasuna jarauntsitakoan —erantsi zuen.

Angelita emakume praktikoa zen, eta sentimentaltasunen ez oso zalea. Semeak aukeratutako neska ez zela Araozkoa eta zaindariaren jaietan hiribilduan elkar ezagutu zutela jakin zuelarik, ez zuen haren ezkontza onetsi. Gainera, neska hark ez zuen ezkonsaririk. Baina aitortu beharra dago ez zuela neskari buruzko iritzirik eman, amaginarreba ona izaten saiatu zela eta beti lagundu ziola errainari. Baserriko bizimodua bizimodu latza zen, ordea, eta ez zegoen ametsetarako eta ilusioetarako astirik. Urteak ziren Faustinoekin hitzik egiten ez zuela, baina bost axola horrek.

Lehen emaztea hil eta urtebetera, doi-doi, eta zegokion dolua beteta, alabari gordea egiteko baimena eskatu zion Valentinek Faustinoari, baita honek eman ere, nahiz eta ez izan, egia esan, ametsetako suhia, haur baten aita eta etxe kalamestra bateko nagusia izanik; baina besterik ez zegoen, nonbait, eta gizonetzko biloba bat nahi zuen berak. Baserri aberatsa zuen, eta ezin joango zen beste mundura oinordekorik eta kontuak behar bezala bideratuta utzi gabe. Bestalde, zahartzen hasita zegoen, eta beste gizon baten premia zuen baserriko lan gogorretarako. Ezkontza

hitzartu eta ezkontza-legea betetzeko eguna jarri zuten egunean, baldintza hauxe jarri zuen aitagarreba izango zenak: bikotea Goikoara joatea bizitzea, eta gizonaren alaba gabe, ez baitzeukan beste emakume baten alaba mantentzeko inolako asmorik. Baldintza hori zela-eta, sesio bizia sortu zen aitagarrebagaiaren eta amagarrebagaiaren artean; baina, auzokoek ziotenez, aspaldiko kontua zen, biak gazteak zirenekoa: Faustinok Angelitari gorrea egin nahi izan zion, nonbait, bien lurrak, goikoak eta behekoak, batzeko asmoarekin, baina emakumeak uko egin omen zion.

Lehen emaztearen hiletatik bi urtera, Felicianarekin ezkondu zen Valentin, eta Goikoan jarri zen bizitzen. Julia eta amona ez ziren izan elizkizunean, ezta ondorengo ezteietan ere; haiek izan ziren ekitaldian Araoztik falta izan ziren bi auzoko bakarrak. Angelitak behia jezten ari zela entzun zuen ezkilen errepika, eta San Antonio Abaderen mesedea eskatu zuen, hura baitzuen santu kutuna, auzoko agurea mundu honetatik lehenbailehen eraman zezan. Hura desagertutakoan, neskak eta berak Valentinekin bizitzeko aukera izango zuten eta familia bat izango ziren berriro. Urteak pasatu ziren, ordea, eta miraririk ez. Goiko baserriko nagusiak osasun ona zuen; neurritsua zen janean eta edanean, eta hamar-hamarretan oheratzen zen; ez zuen hiltzeko inolako asmorik, bere auzoko eta amagarrebakideak errogatibak eginagatik ere edo animalien eta harakinen zaindariari hamaika kandela jarriagatik ere. Agurea gero eta aberatsagoa zen, eta gero eta pobreagoa, berriz, bera; eta berehala ikusten zen, gainera, bataren eta bestearen etxeei begiratu hutsarekin: karez zuritua eta igeltsuztatua zegoen bata, eta erortzeko zorian, bestea. Inork ezer esan ez zezan, eta,

lehen ezkontzatik sorturiko alabari ogia lapurtu ziola lepora ez ziezaioten, Faustinok hileroko hainbateko bat ematen zion suhiari, honek alaba nolabaiteko duintasunez manten zezan; argi utzita, hori bai, arropatarako eta jakietarako baino ezin zutela erabili diru hura. Egun batez, Bekoan agertu zen, hala egiten zutela egiaztatzeraz, eta Angelitak txakurra bota zion, zaldiaren neurriko artzukur bat, jabeari enbarazu egiten zion guztiarekiko oso aiurri txarrekoa. Hankak gainean jarri, lur lokaztura bota eta handik berehala alde ez eginez gero kontuak okerrera egingo zuela ohartarazi besterik ez zion egin animaliak. Faustinok mendekua hartuko zuela zin egin zuen, eta ez zien hileroko hainbatekorik sekula gehiago eman.

–Hemen duzu behar duzun guztia, eta arroparik edo beste ezer behar izanez gero, Feliciana arduratuko da guztiaz –iragarri zion suhiari.

Zergatik onartzen zuen Valentin Iturraldeko egoera hura? Galdera horixe egiten zioten auzoko guztiek beren buruari. Ez zen aiurri biziko gizona, baina galtza-jario hutsa izatea, hori beste kontu bat zen. Bere senean dagoen inork ez luke onartuko halako traturik, ez litzateke besteren etxean morroi soil baten modura lan eginez biziko, bere etxea edukita, eta ez lituzke alaba eta ama abandonatuko. Baina bera, ez baitzen sekula bereziki adierazkorra izan, isildu egiten zen; mezetara aitaginarrereba eta emaztea baino lau urrats atzerago joan, txoko batean eseri, eta bere babesik gabe hazten ari zen alaba hura bilatzen zuen begiradaz. Bere begiek eta amarenek ere topo egin izan zuten, noizbait, baina ez zuten elkar ezagutzen. Angelita arras zahartuta zegoen, eta makotuta zuen bizkarra. Ezkondu ondorengo lehen hilabeteetan, amari laguntzera jaitsi izan zen

Bekoara, baina, gero, jaisteari utzi zion, eta hilaren hasieran hilerokoa eramatera baino ez zen joaten; bisita haiek ere bukatu egin ziren, ordea, hilerokoarekin batera. Amak ez zion barkatzen bera eta biloba horrela abandonatu izana, ezta Felicianarekin ezkondu eta hamaika hilabetera jaiotako bikiak, neska-mutilak, berak ezagutu zitzan Bekoara ez eraman izana ere. Beste bi biloba zituen, eta ez zituen ezagutu ere egiten. Hala, semerik ez zuela erabaki, eta harengan pentsatzen zuen aldi oro bularra estutzen zion pena sakon hura sentitzeari utzi zion.

Egun batean, Valentin desagertu egin zen. Hasieran, emazteak eta aitaginarrebak pentsatu zuten Zañartu auzora joana izango zela, Faustinok hazitarako erositako txekorraren bila; baina gautu zuen, eta Valentin ez zen agertu.

—Berandutu egingo zitzaien, eta hantxe geldituko zen lotan.

—Ondotxo dakizu, aita, ez lukeela sekula halakorik egingo. Gaua egiten zaiola ere, beti itzultzen da etxera —jarraitu zuen berak.

—Ez iezaiozu buelta gehiago eman, etorriko da bihar.

Ez zen joan, ordea; ezta hurrengo egunean ere. Larrituta zegoenez, eta alabaren negarrak entzun behar ez izateko ere bai —senarra edozein txokotan hilda agertuko zela pentsatzen baitzuen alabak—, Faustinok mandoa apailatu, eta Zañartura abiatu zen. Baina han inork ez zuen Valentin ikusi behi ile-gorria eroatera joan zenetik, eta izango ziren sei hilabete. Aitaginarreba kezkatu egin zen, eta ideiarik xelebreenak bururatu zitzaizkion. Lehenik, jakina, hazitarakoaren diruarekin ihes egin zuela eta ematxar etxeren batean dena xahutzen ariko zela. Baina, gero, gogoeta egin zuen: bere alabaren senarra ez zen horretarako ere gai izango. Hiribildura jaitsi zen, eta tabernetan

galdetu zuen, baita erietxean ere; ondoren, udaletxera joan zen, haren desagertzearen parte ematera. Itzuleran, bururatu zitzaion agian bidean norbaitek eraso egin, dirua lapurtu, eta hil egin zuela, eta, hala, zuhaixka, behe ibar eta erreten guztietan arretaz begiratuz egin zuen bide guztia; ibaia arakatzen ere jardun zuen, baina alferrik. Araotzen egundoko asaldura sortu zuen berriak eta auzokoak, batez ere emakumezkoak, Goikora igo ziren, zer gertatu zen galdezka. Felicianak beltzez jantzita eta etengabe begietara eramaten zuen zapi bat eskuan zuela egin zien harrera. Behingoz, bera zen protagonista.

Lotsatia eta itsusi samarra zen, eta sekula ez zen ongi moldatu besteekiko harremanetan; ez zen ia etxetik ateratzen, mezetara, beti aitarekin, eta ostiraletako briska partidara ez bazen. Aitaren eta gainerako auzokoen iritzia gorabehera, Valentin bere bizitzara iritsi izana miraritzat zuen berak. Gauetik goizera neskazahar izateari utzi –halaxe esaten baitzaie gaztaroa birjintasuna galdu gabe igarotzen zuten emakumeei–, eta bi haurrez erditu zen, auzoan egitandi berdingabea, inondik ere. Ez zeukan gehiago eskatzerik. Egia zen senarrak sekula ez ziola esan maite zuela, eta batzuetan, ohean, iruditzen zitzaiola senarrak benetan gogoan zuena beste hura zela, Benita, baina bost axola berari; bestea hilda zegoen, eta berak lo egiten zuen harekin. Ez zuen pentsatzen beheko baserrian aitaren maitasunaz gabetuta eta premia gorrian bizi zen neskarengan; beretzat, haur hura existituko ez balitz bezala zen. Eta ez zion pentsamendu erdirik ere eskaintzen amaginarreba sorgin hari; lehenago edo geroago beste mundura joango zen, haren lurrak Valentinen esku geldituko ziren eta moldatuko zen bera senarrak bien semearen alde testamentua egin zezan. Hura desagertuta egonik, egoera

aldatu egin zen, baina ziur zegoen Jainkoa alde zuela eta bakoitza zegokion tokian jarriko zuela.

Semea desagertu eta bost urtera, belarretan erdi ezkutatuta ahaztutako aitzur batekin estropezu egin zuen Angelitak, giderrak garondoan bete-betea jo zion, eta bertan seko gelditu zen. Juliak iluntzean aurkitu zuen, berandutzen ari zela-eta kezkatuta haren bila irten zelarik. Beldurtu egin zen, oihuka eta astinka aritu zitzaion arren amona mugitzen ez zela ikusita; Goiakoara igo zen, laguntza eske. Faustino eta Feliciano ziztu batean jaitsi ziren aldapan beheara, auzokoen arteko etsaitasuna alde batera utzi ohi baitzuten une zailetan, arazoa konpondu arte, gero bakoitza bere etxera joan eta elkarri gehiago hitzik egin ez arren. Gainera, oraingoan, familiarterko harremana zegoen tarteko, nahiz eta, auzoko batek zorigaiztoko gertaera hura kontatzean gogora ekarri zuenez, harreman horri buruz galdetzen ziotenean, “urruneko harremana” zela esan ohi zuen zanduak.

Ukuiluko atearen atzean ezkutatuta, beste auzokide batzuk nola etorri ziren eta amonaren gorpua etxera nola sartu zuten ikusi zuen Juliak; erretorea ere ikusi zuen, eta gaubeilako elkarrizketak eta otoitzak entzun zituen. Behe solairuko leihoeetatik, itzalak bereizten zituen, kandelen argi lausotan, amonak hainbestetan aipatu zizkion espektroak balira bezala: Beste Mundurako bidea aurkitu ezinik Lurrean dabilzan arima herratuak, esan ohi zion hark. Bihotz onekoek baino ez omen zuten bide hori topatzen, heriotza etortzen zitzaientean; zintzo jokatu zutenek eta lagun hurkoari kalterik egin ez ziotenek baino ez. Besteak, gezurtiak, zekenak, berekoiak, bizien artean geldituko ziren, beren senide maiteek otoitz eginez haiek bekatuetatik libratu arte.

—Batzuk ez dira sekula libratzen —esaten zuen, gero—, eta beren arimak betiko gelditzen dira hontzen gorputzetan harripatuta.

Ziur zegoen amonak batere arazorik gabe zeharkatuko zuela bizitza honen eta bestearen arteko muga, eta ez zela beharrezkoa ez haren alde otoitz egitea, ez bizien munduan zebilen bitarterako jana eta esnea uztea leiho arasan, ezta beste alderako bidea adierazteko hilen argia piztea ere haren hilobian. Baina aurpegia malkoz bete zitzaion, ezin izan zuen saihestu. Hura beste amarik ez zuen ezagutu. Zer gertatuko zen orain berarekin? Nora joango zer? Auzokoak iritsi zirenetik, ez zen inor berarengana joan, ez zion inork deitu, ez zen inor beraz gogoratu. Aurreko udaberrian habiatik erori eta berak jasotako txanxangorri kume hura bezalaxe sentitzen zen. Txoritxoa kutxa batean sartu zuen, belar ebaki berria jarrita, esne epela eman zion edateko, eta bere eskuez berotzen saiatu zen, baina berak eginahal guztiak egin arren, txoritxoa hil egin zen. Nork berotuko zuen bera, orain?

Felicianak ukuiluko atearen atzean uzkihurtuta aurkitu zuen, ahukua elizara abiatzera zihoala; besotik heldu, etxeraino arrastaka eraman, eta logelan sartu zuen. Sukaldetik igarotzean, denak berari begira zeudela sumatu zuen, gupidaz begiraten zioten batzuek, ezaxola gehienek; berak, berriz, pinuzko kutxa soil haren barruko irudiarentzat baizik ez zuen begirik. Angelita lo balego bezala zegoen, soinekorik onena jantzita, soineko beltz bat, luzera osokoa zuen bakarra, herriko denda batean eresia, semearen lehen ezkontzarako, hamaika urte lehenago. Handik pixka batera logelatik irten zenerako, aitaren emazteak igandetako gona eta blusa janztera behartu

eta iletik tiraka bi txirikorda orraztu ahal izan zizkionerako, hilkutxa itxita zegoen, eta ezin izan zuen amonaren aurpegia berriz ikusi, ezta hari azken musua eman ere.

Elizako bidean, eta, gero, handik kanposanturainokoan, Faustino eta Feliciano izan zituen albo banatan, hurbileko senitartekoei dagokien moduan. Ehorzketaren ondoren, inork ez zion iritzirik galdetu: Goikoara eraman, eta ganbarara bidali zuten lotara, lurrean botatako artilezko lastaira batera; aurrez, afaltzeko barazki pure platerkada eman, eta iragarri zioten karitatez hartu zutela etxean, baina etxeko lanetan zintzo lagundu beharko zuela, baita txerriekin eta oiloekin ere, eta egokitzen zen guztiarekin, bizibidea ateratzeko. Baserriko nagusiak ahots sendoa zuen, eta ozen entzuten zen, baita baxu hitz egiten saiatzen zenean ere; horrela jakin zuen Juliak bere aitaren emazteak eta aitaginarrebak zer asmo zituzten. Hamar urte baino ez zituen, eta ulergaitzak zitzaizkion haien hitz asko, baina garbi zegoen ez zela itzuliko Bekoara, oraingoz, behintzat. Bere aita zen, orain, beheko baserriaren jabea, eta aitaginarrebak berea eta harena lotu nahi zituen, bizi guztian gutiziatutako lurrak uztartu nahi zituen. Negarrez lokartu zen, inguruan saguen lasterraldien kolpetxo bizkorrak entzuten zituela.

Biharamunean, Faustino kalera jaitsi zen, Valentinen absentziak zekarren dilema ebaztera. Don Antonio Zabala abokatuak adi eta etenik egin gabe entzun zion berak esateko zeukan guztia: suhia desagertu egin zen bost urte zirela; bazter guztietan ibilia zen haren bila, eta arrastorik ez; emaztea eta bi seme-alaba utzi zituen; haren ama hil berria zen, eta zerbait egin beharra zegoen jabetzarekin; ez zegoen testamenturik, eta dena

haren emaztearen izenean jartzea izango zen bidezkoena, edo, izatekotan, bere biloba Juan Manuelen izenean, hura baitzen desagertuaren eta, beraz, bere gizonezko oinordeko bakarra.

–Eta alaba? –galdetu zuen legelariak.

–Nire biloba Carmenek ezkonsari ona izango du.

–Ez, Julia Iturralde txikiaz ari naiz.

–Zer gertatzen da?

–Nik dakidanez, zure suhiaren lehenengo ezkontzatik sorturiko alaba da...

Faustinok harrituta begiratu zion.

–Gizasemea dagoen tokian, alferrik da emea –bota zuen, biribil–. Gainera Felicianak eta biok hartu dugu haren ardura eta ezer falta ez dakion arduratuko gara.

–Ez dut zalantzarik egiten, noski... baina gauzak ez dira hain errazak. Izan ere, badago testamentu bat.

–Norena?

–Zure suhiarena, Valentinena. Orain dela bost urte etorri zitzaidan, eta neuk idatzi eta sinatu nuen agiria.

Mahai baten gainean zituen karpeta batzuetan bila ibili zen abokatua, eta bat atera, patxadaz ireki eta lehen orria irakurri zuen. Valentin Iturraldek, bere buru eta gorputz gaitasun guztien jabe zela, Oñatiko Araotz auzoko Bekoa baserriaren eta hari atxikitako baratzeen oinordeko bakar izendatzen zuen bere alaba Julia, Benita Ibañezekiko ezkontzatik sortua. Alaba adin nagusitasunera iritsi edo ezkondu artean, don Antonio Zabala, Oñatiko hiribilduan kokatutako legegilea, izendatzen zuen ondasun haien jagole eta beilari, eta eskumen osoa airtortzen zion bere alabaren ongizaterako eta etorkizunerako legearen aurrean erabaki beharreko guztiak erabakitzeko.

Faustino ahoa zabal-zabal gelditu zen, ez zuen tutik ulertzen. Altxatu, eta abokatuari papera esku artetik kendu zion ia. Ez zekien gaztelaniaz ongi irakurtzen, eta ez zegoen legegintzako idazkerarekin ohituta ere, silogismoz eta bere hiztegian arrotz ziren hitzez betea baitzen; hala ere, aise aurkitu zuen Zabalak irakurritako paragrafoa, eta, batez ere, bere suhiaren sinadura balantzaria ezagutu zuen, orriaren amaieran, beste sinadura batzuen alboan. Orria erdibitzekotan egon zen. Bere amaginarrebakide madarikatu hark bilbatutako marro bat baino ez zen hura guztia, Satanasek infernura eramango ahal zuen! Bera izan zen, seguru, Valentinek ez baitzeukan halako traizio bat bilbatzeko bururik. Hala ere, joan beharreko tokira joango zen okerra zuzentzera, Bekoa Juan Manuelena zen, eta ez zuen onartuko, onartuko ez zuenez, inork bere bilobari jarauntsia kentzea.

Zabalak zirkinik egin gabe begiratzen zion. Gogoan zuen, oraindik, lauso bazen ere, bulegoan agertu zitzaion gizon uzkur haren begitartea, eta ahots barez nola eman zion bere egoera jasanezinaren berri, eta nola esan zion Ameriketara joatekoa zela, ez beste batzuk bezala, dirua egitera, pixkanaka hiltzen zuen bizimodu miseriazko batetik ihesi baizik. Aitaren babesik gabe hazten ari zen neskaz hitz egin zion, baita amari buruz ere, nola etsitu zuen berak, eta sasoiko zegoela, adina gorabehera, baina, gainerako guztiok bezala, noizbait mundu hau utzi beharko zuela. Den-dena prest utzi nahi zuen bere arbasoen etxeak eta lurra Juliaren esku gera zitezen, amonaren babesa galtzen zuenean, bere bigarren aitagarreba, gizon zekena izanik, neskari bere ondare zilegia kentzen saiatuko zelako, seguru asko.

–Erreklamazioa egingo dut! –oihukatu zuen Faustinok, sutan, gorri-gorri, dokumentua mahai gainera botatzearekin batera–. Behar denaren aurrean apelatuko dut! Hau ez da horrela geldituko!

–Ez horixe, ez da horrela geldituko –erantzun zion abokatuak, lasai.

Egun hartan bertan, eta Oñatiko aguazila lagun zuela, Goikoan azaldu zen, eta berarekin eraman zuen neskatila, haren tutoretza berari zegokiola argudiatuta. Ez zien jaramonik egin ez baseritarraren madarikazioei, ezta haren alabaren kexuei eta negar-zotinei ere; neskarengan iltzatuta zeuzkan begiak. Haurra berari begira-begira zegoen, isilik, eta zalantzarik egin gabe heldu zion eskutik, berak zaldi gainera igotzeko eskua luzatu zionean. Zerbait jasotzera etxera joan nahi ote zuen galdetu zion, jostailuren bat, oroigarriren bat jaso nahi ote zuen... eta neskak ezetz erantzun zion, ez zuela halakorik; baina jaunari erregutu zion bidean gelditzeko, otalore adaxka bat hartzeko. Amonak beti esaten baitzion otalore urre-koloreak maitasunaren lagungarri zirela eta babesaren ematen zietela arima bakar-tiei. Ez zuen ezer gehiago esan bide guztian. Harrezkero, inoiz eduki ez zuen alaba izan zen Julia beretzat, sekula pentsatuko ez zukeen moduan alaitu zion bizitza, eta barrea entzun zen, berriro, bere emazte maitearen heriotzaz geroztik isilik eta triste egon zen etxetzarrean.